



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko ekainaren 13a

77. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tarteak egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-25/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitortu dezan haurdunaldiko, jaiotzeko nahiz jaioberriko dolua errealitate sanitario eta emozionala dela, eta bermatu dezan arreta publiko integral, humano eta koordinatua emanen zaiela errealitate horrek ukitei. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-25/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irizpen bat bultza dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-25/MOC-00098. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza administratibo eta arau egiten ahal diren persona juridikoak baztertu, mugatu, eragotzi edo zehazteko, baldin eta genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduerak egiten badituzte. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-25/PES-00235. Galdera, Atzerriko Hizkuntzako Curriculum saioei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (8. or.).
- 11-25/PES-00236. Galdera, laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00237. Galdera, Latasako hondakin-uren araztegi kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (9. or.).
- 11-25/PES-00238. Galdera, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (10. or.).

- 11-25/PES-00239. Galdera, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (10. or.).
- 11-25/PES-00240. Galdera, Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharriaz aurre egiteko egokitzera bideratutako neurriari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (11. or.).
- 11-25/PES-00241. Galdera, Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherari emandako erantzunari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00242. Galdera, Sumando TV eta WEB SArri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- 11-25/PES-00243. Galdera, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (13. or.).
- 11-25/PES-00244. Galdera, giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00245. Galdera, unibertsitate-graduetako eta masterretako kredituen kostuari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00246. Galdera, Tierra Estella Bus/Lizarerria Bus hiriarteko garraioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 71/2025 Ebazpena, ekainaren 6koa, zeinaren bidez 11-25/PES-00179 espediente-zenbakia duen idatzizko galdera Kultura, Kirol eta Turismo Batzordearen hurrengo bilkuran sartzen baita, ahoz erantzuteko (17. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/PECP-00004. Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko hiru transkribatzaile-lanpostu betetzeko, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Haietako batek euskarako C1 hizkuntza-eskakizuna du. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (18. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (22. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (22. or.).
- 11-24/SGRP-00004. Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2024 ekitaldiko urteko kontuak (23. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-25/MOC-00095. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko**

### *MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Donejakue Bidea mundu osoko erromesaldi ezagunenetako bat da. Hori dela-eta, urtero herrialde askotako milaka erromesek bisitatzen dute Nafarroa. Horrela, besteak beste gure erkidegoa nazioartekotzen da, eta bidea da Nafarroa mapa unibertsalean kokatzeko arrazoi nagusietako bat.

Ulertu behar dugu Donejakue Bidea gure lurraldetik igarotzea opari bat dela, eta bideak zeharkatzen dituen herri asko, familia ugari eta

negozio txiki asko bideak sortzen duen jardueratik bizi dira. Donejakue Bidea biztanleria finkatzen laguntzen duen beste elementu bat da, baita zeharkatzen dituen landa-eremuetan ere, eta Foru Komunitatearen zati handi batean diru-sarrerak sortzen dituen motor ekonomikoa da.

Hala ere, zenbait arrazoi direla medio, Nafarroa indarra galtzen ari da Donejakue Bidea egiten hasteko aukeratutako leku gisa, eta erkidego erreferente izatetik bidea hasi ondotik igarotzen den komunitate izatera pasatu gara. Horrek indar turistikoa galtzea dakar, baina baita garrantzia galtzea eta galera ekonomikoa ere Nafarroako Donejakue Bidea hasten zen eremuan.

Foru Komunitateak 20.000 erromes 'galdu ditu' 2016. urtearekin alderatuta. Datuok erakusten dutenez –Nafarroako Gobernuak Turismo Behatokiak eman ditu–, Donejakue Bidea egiten duten erromesen kopuruak behera egin du. Nafarroako Donejakue Bidearen Lagunen Elkarteak ere antzeko ondorioak helarazi zituen Parlamentuan egindako lan-bilkuran.

Hortaz, gure ustez premiazkoa da erromesei Nafarroara iristen direnean harrera erraztea, informazioa nahiz Nafarroan Donejakue Bidean duen abiaburura iristea erraztu bidenabar.

Nafarroako Turismoaren webgunean atal espezifikoa bada ere, eta bulego fisikoan ere materiala eskaintzen bada ere, erromesaldia egitera Nafarroara trenez, autobusez edo hegazkinez helitzen diren pertsonentzako informazio gutxi dago, iristen diren geltokietan ez baitute Donejakue Bideari buruzko materialik aurkitzen. Pertsona horiek zailtasunak dituzte Iruñetik Orreagara joateko garraioa aurkitzeko, eta Nafarroako Gobernuak ez dio arazo horri konponbiderik ematen.

Erabaki-proposamena:

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du beste departamentu eta erakunde publiko batzuekin lankidetzan:

1. Informazio-guneak para ditzan turistak hartzen dituzten geltoki nagusietan (Renfe, autobus-geltoki nagusiak eta Noaingo aireportua), Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko, bidea modu seguruan eta asegarrian egiteko.

2. Turistak hartzen dituzten geltokietan (Renfe-ko geltokiak, autobus-geltoki nagusiak eta Noaingo aireportua), gure erkidegoko kultura-, turismo- eta aisialdi-eskaintzari buruzko informazioa jasotzeko guneak para ditzan.

3. Tren- eta autobus-geltoki nagusiak Orreagarekin lotu ditzan, anezken bidez, gure erkidegoko bidearen lehen etapa baita hori.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-25/MOC-00096. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita aitortu dezan haurdunaldiko, jaiotzako nahiz jaioberriko dolua errealitate sanitario eta emozionala dela, eta bermatu dezan arreta publiko integral, humano eta koordinatua emanen zaiela errealitate horrek ukituei**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita aitortu dezan haurdunaldiko, jaiotzako nahiz jaioberriko dolua errealitate sanitario eta emozionala dela, eta bermatu dezan arreta publiko integral, humano eta koordinatua emanen zaiela errealitate horrek ukituei.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernuak premiatzen da aitortu dezan haurdunaldiko, jaiotzako nahiz jaioberriko dolua errealitate sanitario eta emozionala dela, eta bermatu dezan arreta publiko integral, humano eta koordinatua emanen zaiela errealitate horrek ukituei.

zako nahiz jaioberriko dolua errealitate sanitario eta emozionala dela, eta bermatu dezan arreta publiko integral, humano eta koordinatua emanen zaiela errealitate horrek ukituei.

Zioen azalpena

Edozein galeraren aurrean, pertsonak dolu ize-neko prozesu emozional bat hasten dute. Jaiotzako dolua da haurdunaldian, erditzean nahiz erditu ostean gertatzen den galerak eragindakoa. Kasuistika eta nomenklatura asko daude: umetoki barruko heriotza goiztiarra edo berantiarra, erditze barruko heriotza, berezko abortua, haurdunaldia etetea, biki baten heriotza, haurdunaldiko, jaiotzako edo jaioberriaren heriotza...

Egunero, munduan, halako 23 milioi galera daude, hau da, 44 minutuko. Estatuan, haurdunaldiaren 22. astetik bizitzako 28. egunera arte 2.500 haur inguru dira urtean, eta zuzeneko eragina dute egunero 6 familian. Eta datu horietan ez dira kontuan hartzen ez bizitzako 28. egunetik aitzinako jaioberrien heriotzak ez haurdunaldiaren borondatezko eta legezko eteteak, ez haurdunaldiaren lehenbiziko eta bigarren hiruhilekoan gertatutako heriotzak, horien kopurua askoz ere handiagoa baita. Datu horiek erakusten dutena da, guztira, haurdunaldien % 25ek, lautik batek, ez dakarrela haurtxo bat besoetan edukitzea.

Jaiotzako doluak hurbileko familia eta gizarte-inguruneari eragiten dio, bai eta hura artatzen

duten osasun-profesionalei ere. Profesional horiek zeregin erabakigarria dute kaltetuek dolua ahal den modurik osasungarrienean jasan dezaten. Hori horrela izan dadin, dolua ezin du norberak bakarrik egin, eta profesionalak behar bezala prestatuta egon behar dute. Eta, horretarako, aldaketa sozial eta sanitarioa egon behar da, horrelako galerak jasaten dituzten pertsonen informazioa, baliabideak eta jarraipena emateko, bai eta arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza espezializatua emateko ere.

Badakigu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hainbat neurri hartzen dituela egoera horietako bat gertatzen denean; hala ere, emakume eta bikote askok ez dute zerbitzu hori baliatu ahal izan.

Gainera, askotan ikusezin bihurtzen diren eta baimenik ez duten doluez ari gara; izan ere, ez dute baimen sozialik jasotzen modu irekian sentitzeko eta adierazteko, eta, beraz, ez dute behar duten laguntza jasotzen gizarte- eta osasun-eremuan. Heriotza aitortzen ez bada, gurasoen dolua ere ez.

#### Erabaki-proposamena

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako erregistro-adierazle batzuk ezarzteza, datuak eskuragarri egon ahala, estatistiketan haurdunaldiaren etapa guztiak sartzeko eta, horrela, datu egitiak izateko errealitate ikusezin horri buruz.

2. Arretan inplikaturako langile guztien prestakuntzarekin jarraitzea (baita langile ez-sanitarioen kasuan ere), sistemaren eta tratuaren humanizazioaren eta sentsibilizazioaren ikuspegitik, bi helburrekin: familiei lagun egitea eta informazioa ematea, eta profesionalen prestakuntza eta laguntza ematea, eta, kasua bada, talde terapeutikoak edo haientzako programa egonkorak sortzea baloratzea.

3. Protokolo edo gida bateratu bakarra ezarzteza Nafarroan, haurdunaldiko, jaiotzako eta jaioberriko doluak dituzten pertsonen arreta integrala emateko. Gida edo protokolo horrek honako hauek bete beharko ditu:

– Koordinazio eraginkorra bermatzea asistentzia-arlo eta -mailetan, denek izan dezaten gertakariaren berri eta horren arabera jardun dezaten: hitzorduak bertan behera uztea eta jarraipen-hitzorduak sortzea (lehen mailako arreta, ginekologia eta obstetrizia, osasun mentala...).

– Horrelako galerak jasan berri dituzten pertsonen arreta emateko behar diren intimitatea eta denbora bermatzea, Nafarroako ospitaleetan espazioak egokituz, amatasun-eremuan arreta ematea saihestuz.

– Familiak prestatzea hildako haurtxoa agurtzeko, informazioa eta aukerak eskainiz. Horretarako, ekipamenduak egongo dira, hala nola "sehaska hotzak", zaintza-zirkuitu bat eta argazkiak egiteko aukera. Hala ere, oroitzapen-kutxa bat eskainiko da beti.

– Laguntza psikologikoa ematea kaltetuei eta haien ingurune afektibo zuzenari, eta, kasu guztietan, dauden programei buruzko informazioa ematea, bai eta erreferentziazko dolu-taldearekin harremanetan jartzeko aukera ematea ere.

– Arloan adituak diren profesionalak kontuan hartzea hori taxutzeko, bai eta Nafarroako haurdunaldiko, jaiotzako eta jaioberriko doluaren inguruan lan egiten duten elkarteak eta eragileak ere.

4. Haurdunaldiko, jaiotzako eta jaioberriko galera pairatzen duten pertsona guztiei zuzendutako programen garapena eta ezarpena sustatzea eta programa horietarako sarbidea eta deribazioa handitzea eta malgutzea, baldin eta hori eskatzen badute.

5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen eta ukitutako pertsonen artean laguntza- eta elkarrizketa-sareak sortzea, entitate aitortuen bidez.

6. ONOZ-Osasunbideak sentsibilizazio-kanpainak egitea urriaren 15aren inguruan, hau da, haurdunaldiko, jaiotzako eta jaioberriko doluaz kontzientziazteko nazioarteko egunaren inguruan. Dolu horiek baliozkotzeko eta sozializatzeko helburuarekin, isiltasuna, tabua eta estigmatismoak gainditzeko.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

## **11-25/MOC-00097. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita irizpen bat bultzatuz dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko**

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita irizpen bat bultzatuz dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Memoria eta Bizikidetzak, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordean eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Ekainaren 6an, Osoko Bilkurak honako mozio hau onetsi zuen: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premia-tzen ditu maila administratibo desberdinetan beharrezkoak diren ekimen politikoak eta dagozkion arau-aldaketak bultzatuz ditzaten (aldaketak kontratazio publikoari buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan eta emakida-kontratuak esleitzeari buruzko 2014/23/EB Zuzentarauan; azaroaren 8ko 9/2017

Legean, Sektore publikoko Kontratuei buruzkoan; apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean, Kontratu Publikoari buruzkoan), bermatzeko ezen, erantzukizunpeko adierazpenak eskatuta, iturri zorrotz eta fidagarrien bidezko egiaztapenak eginda eta/edo egoki iritzitako beste edozein tresnaren bidez, hala obra eta zerbitzuen enkarguetan nola erosketa publikoetan nahiz dirulaguntzen prozeduretan, bazter utziko direla nazioarteko zuzenbidearen arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduera ekonomiko, komertzial, logistiko edo teknologikoetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten pertsona juridiko guztiak.

Mozio horren erabakiaren helburua betetzeko lagungarria izanen litzateke, hortaz, Nafarroako Gobernuak sustatzea 2014/24/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak aldatzea, eta ohartzen garenez Gobernuaren lehentasunezko espazioa Europako Erregioen Batzordea dela Europar Batasunaren erabakiak hartzeari dagokionez, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Europako Erregioen Batzordean irizpen bat sustatuz dezan 2014/24/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak aldatzeko, bai eta Europar Batasuneko estatuen nahiz Europar Batasunaren Administrazioaren beraren obra eta zerbitzuen enkarguen, erosketa publikoen eta dirulaguntzen prozedurei buruzko araudi guztia ere, bazter uzteko arrazoia izan dadin nazioarteko zuzenbidearen arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak egin daitezela laguntzen duten jarduera ekonomikoak, komertzialak, logistikoak edo teknologikoak zuzenean edo zeharka egitea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

**11-25/MOC-00098. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza admini-  
stratibo eta arau egiten ahal diren persona juridikoak baztertu, mugatu,  
eragotzi edo zehatzeko, baldin eta genozidio, gerrako krimen,  
gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen,  
egiten edo errazten laguntzen duten jarduerak egiten badituzte**

**MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-  
tzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza admini-  
stratibo eta arau egiten ahal diren persona juridikoak baztertu, mugatu,  
eragotzi edo zehatzeko, baldin eta genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurka-  
ko krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jardue-  
rak egiten badituzte.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzen-  
ketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari eki-  
teko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parla-  
mentarioko foru parlamentari Miguel Garrido Solak,  
Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren  
babesean, honako mozio hau aurkezten du, Eko-  
nomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Ekainaren 5ean, Osoko Bilkurak honako mozio  
hau onetsi zuen: Nafarroako Parlamentuak Nafarroa-  
ko Gobernua eta Estatuko Gobernua premia-  
tzen ditu maila administratibo desberdinetan beharrezkoak  
diren ekimen politikoak eta dagozkion arau-aldaketak  
bultzatzen (aldaketak kontratazio publikoari  
buruzko 2014/24/EB Zuzentarauan eta emakida-kon-

tratuak esleitzeari buruzko 2014/23/EB Zuzenta-  
rauan; azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore publi-  
koko Kontratuei buruzkoan; apirilaren 13ko 2/2018  
Foru Legean, Kontratu Publikoari buruzkoan), bermat-  
zeko ezen, erantzukizunpeko adierazpenak eskatu-  
ta, iturri zorrotz eta fidagarrien bidezko egiaztapenak  
eginda eta/edo egoki iritzitako beste edozein tresna-  
ren bidez, hala obra eta zerbitzuen enkarguetan nola  
erosketa publikoetan nahiz dirulaguntzen prozedura-  
tan, bazter utziko direla nazioarteko zuzenbidearen  
arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurka-  
ko krimen edo apartheid diren ekintzak mantent-  
zen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduera  
ekonomiko, komertzial, logistiko edo teknologikoetan  
zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten pertso-  
na juridiko guztiak.

Goragoko instantzia administratiboetan lege-  
aldaketa egokiak bultzatzeaz haratago, mozio hori  
eta mozioaren espiritua betetzeko, Nafarroako  
Gobernuak eskumena izan beharko du pertsona  
juridikoak baliabide publikoek gozatzetik baztertu,  
mugatu, eragotzi edo zehatzeko, baldin eta giza  
eskubideak urra daitezen laguntzen duten jarduera  
ekonomikoak egiten badituzte. Hori dela-eta, hona-  
ko erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-  
nua premia-  
tzen du txosten juridiko bat egin dezan,  
ezartzeko zer ekintza administratibo eta arauemai-  
le bultzatzeaz bere eskumen-esparruan per-  
tsona juridikoak obra-enkarguak eta zerbitzuak,  
erosketa publikoen prozesuak nahiz dirulaguntza-  
prozedurak gozatzetik baztertu, mugatu, eragotzi  
edo zehatzeko, baldin eta nazioarteko zuzenbidea-  
ren arabera genozidio, gerrako krimen, gizateria-  
ren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak  
egin daitezen laguntzen duten jarduera ekonomi-  
koak, komertzialak, logistikoak edo teknologikoak  
zuzenean edo zeharka egiten badituzte.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-25/PES-00235. Galdera, Atzerriko Hizkuntzako Curriculumuma saioei buruzkoa***PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Atzerriko Hizkuntzako Curriculumuma saioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Duela gutxi, programa eleanizetako Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxetako zuzenda-

ritza-taldeek Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuari aurkeztu zioten zer aurreikuspen darabilten irakasle-plantillari dagokienez 2025-2026 ikasturterako, zeinetan, jakina, atzerriko hizkuntzako hizkuntza-eskakizuna duten irakasleen beharizanak jasotzen baitziren.

Eskura ditugun informazioen arabera, badirudi aurreikuspen horiek itzuli zaizkiela Gorputz Hezkuntza eta/edo Musika atzerriko hizkuntzan ematen dituzten ikastetxeei, eta arlo horiek ikastetxearen proiektu eleaniztunetik kanpo geratzen direla adierazi diete, 57/2024 Foru Agindua betetzen ez dutela alegatuz.

5. artikulua honako hau dio: "Curriculumuma atzerriko hizkuntzan osatzeko saioak atzerriko hizkuntzako edukiak indartzera bideratzen ahal dira, baina atzerriko hizkuntzan emateko aukeratzen den beste edozein irakasgaitakoak indartzeko ere baliatzen ahal dira."

Foru aginduaren zer artikulutan oinarritzen da Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzua ez-betetze hori justifikatzeko? Curriculumean sartzen ez diren arloak al dira Gorputz Hezkuntza edo Musika?

Iruñean, 2025eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## 11-25/PES-00236. Galdera, laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, laborategien zerbitzua kanpoan kontratatzeari buruz Osasuneko kontseilariak adierazitakoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilariak oraindik uste al du, Nafarroako Parlamentuak maiatzaren 29an egindako Osoko Bilkuran adierazi zuen bezala, 2015an "UPNk laborategiak azpikontratatu nahi zituela"? Zertan oinarritzen da hori esateko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-25/PES-00237. Galdera, Latasako hondakin-uren araztegiaren kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Latasako hondakin-uren araztegiaren kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko irailean, kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamendua jarri zuen abian NILSAk Latasako hondakin-uren araztegiaren, ibaiko uraren kalitatea hobetzeko. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer jarraipen egin du Latasako hondakin-uren araztegiaren kloruro ferrikoa dosifikatzeko tratamendua jarri zenetik?

Departamentuak zer ebaluazio egiten du eutrofizazioa murriztearen ezarritako tratamenduaren eraginkortasunari buruz?

Hobekuntzarik hauteman al da Ultzama ibaia-aren egoera ekologikoan tratamendua hasi ondoren, eta, hala baldin bada, zer parametrok adierazten dute hori?

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an.

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

**11-25/PES-00238. Galdera, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa***FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Ultzama ibaian mindak isurtzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ultzama ibaian egiten diren minda-isurketei buruz hainbat kolektibok egindako salaketa ugarik ikusita, honako hau jakin nahi dugu:

Ingurumen Departamentuak zer neurri hartu du hori dela-eta?

Eta zer informazio ematen dute Ultzama ibaiko uren analisisen emaitzek?

Iruñean, 2025eko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

**11-25/PES-00239. Galdera, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruzkoa***MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreaki, idatziz erantzun diezaión:

Zertan da turismo-bulegoak zerbitzu-bulego bihurtzeko prozesua?

Zer aurrerapen eta mugarri lortu da eraldaketa horretan?

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-25/PES-00240. Galdera, Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharriaz aurre egiteko egokitzera bideratutako neurri buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharriaz aurre egiteko egokitzera bideratutako neurri buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernu Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko du Hilarión Eslava ikastetxea 0tik 3 urtera bitarteko ikasleen beharriaz aurre egiteko? Izan ere, ziklo hori salbuespen modura ezarri da ikastetxean, baina 2025-2026 ikasturtetik aitzina ez da salbuespen modura ezarrita egonen.

Parlamentariok egin genuen bisitan honako eskari hauek helarazi zizkiguten:

- Zikloko ikasleen mugimendu-beharren araberrako patioa.

- Bainuak ur beroarekin.

- Jantokirako espazio espezifikoa.

Iruñean, 2025eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-25/PES-00241. Galdera, Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherei emandako erantzunari buruzkoa**

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara etortzeko eskola-garraioan gertatutako gorabeherei emandako erantzunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunari, idatziz erantzun diezaion:

Duela gutxi, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean, lan-bilkura bat egin zen Basaburuko Udaleko ordezkariekin eta ukitutako familiekin. Bilera horretan, egoera azaldu zuten, eta, aldi berean, eskola-garraioko zailtasunengatik haserre zeudela adierazi zuten. Gai horren berri izan ondoren, galdera hau egin nahi dizugu: zein da departamentua ematen ari den erantzuna Basaburutik Iruñerriko ikastetxeetara eskola-garraioa erabiltzean gertatutako gorabeherei dagokienez? Izan ere, hori izan da departamentua eta bertako ordezkariak harremanetan jartzeko arrazoia.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## **11-25/PES-00242. Galdera, Sumando TV eta WEB SAri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Sumando TV eta WEB SAri (Navarra TV) 2015etik 2025era bitarte emandako diru publikoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-

aren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zenbat diru publiko eman zaio Sumando TV eta Web SAri (Navarra TV) edozein tresnaren bidez (hitzarmenak, dirulaguntzak, kontratuak, babesak, publizitate instituzionala, programa berezien grabazioa, etab.) 2015etik 2025era, bai Nafarroako

Gobernuaren aldetik, bai Nafarroako enpresa eta fundazio publikoen aldetik?

Informazioa kontzeptuen eta urteen arabera banakatuta emateko eskatzen da, baita eman duen entitatearen edo departamentuaren arabera ere.

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

---

## 11-25/PES-00243. Galdera, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa

*OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 69.2 artikulua honako hau ezartzen du:

"Nafarroako Gobernuak urtebeteko epean prestatuko du trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia bat, energia-trantsizioak ukitzen dituen sektore ekonomikoen eta sozialen diagnostikoa egin eta haren ondorio kaltegarriak arintzeko neurriak ezar ditzan".

Galderak:

Idatzi al da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legeak ezartzen duen trantsizio justurako eta klima-justiziarako estrategia?

Erantzuna ezezkoa bada, zer epe aurreikusten dituzte Nafarroako Gobernuak eta haren departamentuek trantsizio justurako eta justizia klimatiko-rako estrategia idazteko?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

## 11-25/PES-00244. Galdera, giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, giltzurrun-transplanteak egitearren Nafarroako Unibertsitatea Klinikara bideratutako pazienteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak 2023an berritu zuen, 2028ra arte hain zuzen ere, osasun-laguntza emateko kontratua Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin (ospitaleratzea, kanpo-kontsultak, azterketa diagnostikoak, tratamendu bereziak, kirurgia-prozesuak eta transplanteak).

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

Zenbat pertsona bideratu dira, 2023an eta 2024an, Nafarroako Klinika Unibertsitariora giltzurrun-transplantea egiteko, urteka eta bideratutako pertsona bakoitzaren larritasun-mailaren arabera zehaztuta?

Iruñean, 2025eko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## 11-25/PES-00245. Galdera, unibertsitate-gradueta eta masterretako kredituen kostuari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, unibertsitate-gradueta eta masterretako kredituen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Apirilaren 10ean, honako galdera idatzi hauek egin nizkion Gobernuari:

"Nola kalkulatu da Nafarroan unibertsitate-gradueta eta masterretako ikasketetako kredituen kostua, gaitzen dutenena nahiz gaitzen ez dutenena, azken 8 urteetan?"

